

**907/2016 EBAZPENA, IRAILAREN 23KOA, ARABAKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO ZUZENDARI-KUDEATZAILEARENA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ARABAKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUAN DIGESTIO-APARATUKO MEDIKU ESPEZIALISTA PLAZA BAT ZERBITZU-EGINKIZUN BIDEZ EMATEKO DEIALDIA HUTSIK GERATU DELA ADIERAZTEKO**

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-kudeatzailearen 2016ko urtarrilaren 22ko 76/2016 ebazpenaren bitartez, publiko egin zen Arabako Erakunde Sanitario Integratuan Digestio-aparatuko mediku espezialista plaza bat zerbitzu-eginkizun bidez emateko deialdia.

Apirilaren 11ko 476/2016 Ebazpenaren bitartez, deialdirako behin-behinean onartutako hautagaien zerrenda onartu zen; bi hautagai bakarrik agertzen ziren.

Behin Ebazpena argitaratuta, lehen postuan zegoen hautagaiak bere borondatez deialdiari uko egiten ziola jakinarazi zuen.

Era berean, bigarren hautagaiak borondatezko eszedentzia bat eskatu zuen interes partikularragatik, Goierri Urola-Garaiko Erakunde Sanitario Integratuaren 2016ko uztailaren 27ko 595/2016 ebazpenaren bitartez onartu zitzaiona. Ondorioz, 2016ko abuztuaren 15ean borondatezko eszedentzia-egoerara igaro zen, eta horrek plaza lortzeko deialditik kanpo utzi zuen automatikoki zerbitzu aktiboan ez izateagatik. Kontuan izan behar da Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Kudeaketako Zuzendaritzaren urtarrilaren 22ko 76/2016 Ebazpenaren 1.3 oinarriaren arabera, zerbitzu aktiboan izatea ezinbesteko baldintza dela deialdian parte hartzeko.

Horiek horrela,

**HONAKOA EBAZTEN DUT:**

*Bat.*- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan Digestio-aparatuko mediku espezialista plaza bat zerbitzu-eginkizun bidez emateko deialdia hutsik uztea, prozedura amaitutzat emanaz dagozkion ondorio guztiekin behin iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den datatik aurrera.

*Bi.*- Ebazpen hau prozesuan parte hartu zuten pertsoneri zein Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendaritzari jakinaraztea, erabakiaren berri izan dezaten.




*Hiru.-* Ebazpen hau Osakidetzako Intraneten zein webgune korporatiboan argitaratzea. Era berean, iragarki bat argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Ebazpen honen aurkako gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

**Gasteizen, 2016eko irailaren 23an**

**En Vitoria-Gasteiz, a 23 de septiembre de 2016**



**Iz./Fdo: JESÚS LARRAÑAGA GARITANO**  
**ZUZENDARI KUDEATZAILEA / DIRECTOR GERENTE**  
KUDEATZARI KUDEATZARITZA  
DIRECCIÓN GERENCIA